

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**7/2016 Foru Araua, maiatzaren 18koa, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Araua aldatzekoa, etxebizitza-errentamenduari dagokionez**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2016ko maiatzaren 18an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

**7/2016 Foru Araua, maiatzaren 18koa, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Araua aldatzekoa, etxebizitza-errentamenduari dagokionez**

#### ZIOEN AZALPENA

Aldaketa honen xedea da Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari hoberi bat ezartzea, etxebizitzaren errentamenduei dagokienez. Halakotzat joko dira Hiri Errentamenduen Legearen 2. artikuluan definitutakoak.

#### ARTIKULU BAKARRA

3. atal bat gehitzen zaio Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko martxoaren 31ko 11/2003 Foru Arauaren 70. artikuluari. Honela idatzita geratuko da:

“3. Hala dagokion kasuetan, Foru Arau honen 69. atalaren B) letraren 39. zenbakian jasotako salbuespena aplikatzearen kaltetan joan gabe, zerga honetan ehuneko 95eko hoberia izango du etxebizitza-errentamendua eratzeak. Horretarako, etxebizitza-errentamendutzat joko da soil-soilik Hiri Errentamenduen 29/1994 Legearen 2. artikuluan definitutakoa.

Hoberi hori aplikatzeko beharrezkoa izango da etxebizitza-errentamenduari dagokion urteko errenta, errentariak ordaindu beharreko kontzeptu guztiak barne, 10.800 eurotik gorakoa ez izatea. Betekizun hori ez da eskatuko errentaria familia ugariko titularra denean.

Etxebizitza-errentamendua, errentariak ordaindu beharreko kontzeptu guztiak barne, 10.800 eurotik gorakoa denean, atal honek ezarritako hoberia zenbateko horretaraino ordainduko da.”

#### AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Indarrean sartzea

Foru Arau hau indarrean sartuko da 2017ko urtarrilaren 1ean.

Bigarrena. Gaitzea

Baimena ematen zaio Arabako Foru Aldundiari behar diren xedapen guztiak eman ditzan xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko maiatzaren 18a

*Presidente*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**